

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK

JASOTZEKO FITXA

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzin diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezten.

1. Erakundearen izena:	GOIZPER
2. Sektorea:	Industria
3. Langile kopurua:	185
4. Webgunea:	https://www.goizper.com/
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>1959 urtean sortu zen Goizper, S.Coop., Antzuolan dago kokatuta, eta Goizper Group-eko burua da. Urte hauetan Goizperrek izan duen hazkundearen ondorioz, taldea 3 negozio dibertsifikatutan egituratu da. Goizperrek 14 ordezkari-tza propio dauzka 5 kontinenteetan, nazioarteko presentzia bermatzeko.</p> <p>Goizperrek Euskal Herrian ere baditu enpresa partaide-tuak (Guibe, DTS Oabe, Biofungitek) eta hauek era autonomoan kudeatzen dira, Goizperko zerbitzu batzuen laguntzaz.</p> <p>Taldeak hiru jarduera ditu baina Goizper S.Coop-en (Antzuolan) bi nagusiak garatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none">• Ihinzadura. Eskuzko ihinztagailu eta hautsezttagailuen diseinu, fabrikazio eta komertzializaziora zuzendutako negozioa da eta, besteak beste, nekazaritza, lorezaintza, industria, eraikuntza, garbiketa, pest control eta bektoreen kontroleko tratamenduetan ardatzen da• Industrialia. Potentzia transmititzeko osagaiak eta soluzio pertsonalizatuak diseinatzen, fabrikatzen eta merkaturatzen ditu:<i>frenoak, enbrageak, biraketa sistemak, espekak, jasogailuak...</i> <p>Taldeko hirugarren negozioa Bioteknologia, Antzuolatik kanpo dago, bi enpresa partaide -tuetan egiten da. Produktu bioziden eta formulazio aurreratuen ikerketa egiten da bertan.</p>

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Aitor Azkarate
Helbide elektronikoa:	aazkarate@goizper.com
Telefonia:	943 786 000 Aitor 607576392

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Goizperko Hizkuntza Politika
2. Praktika onaren azalpena:	Zer da? Zertan datza? Enpresek hizkuntzak egoki kudeatu behar dituzte, negozioa bideratzeko abantaila nabarmena direlako eta leku bakoitzeko eta norbanako bakoitzarekiko hizkuntza ekologia zaintzea errespetu seinale delako. Enpresa batean hizkuntza ohiturak aldatzeak enpresako kultura aldatzea dakar, eraldaketa sozial bat eskatzen du. Aldaketa hori modu egokian emateko beharrezkoa da lan teknikoaz gain norabide bat eta jarraibideak zehaztea (horri deitzen diogu Hizkuntza Politika). Hizkuntza bat baino gehiago batera bizi diren egoera guztietan hizkuntza politika bat dago, aitortuta eta idatzita egon ala ez, eta enpresan boterea dutenek erabaki eta bihurtzen dute arau. Goizperko Hizkuntza Politika Orokorra Goizperren lan jardunean erabiltzen diren hizkuntza nagusien inguruko aitortpena da, guztion artean adostu eta esplizitu egindako politika. Goizperren hizkuntza bakoitzak duen funtzioetan oinarrituta dago (berezkoa, ofiziala, komertziala...). Eta Goizperren hizkuntzekiko hartu ditugun konpromisoak eta politika honen jardunak zein arlotan islatuko diren jasotzen ditu. Nondik dator? Goizperren 1999an hasi ginen euskara planaz Emun Aholkularitzaren laguntzaz. Euskararen erabilera, ezagutza eta motibazioa landu eta gora egin ahala, lehen erabakiak hartzen hasi behar izan genuen: zein hizkuntza erabili zertarako, nola... Horrek 2002an Goizperko Euskararen Eskuliburuan hizkuntzaren inguruko politika eta irizpide guztiak biltzea eragin zigun: euskararen erabilerarako behar zen informazioa (helburuak, egitura, baliabideak...) eta hartutako erabakiak eta ezarritako irizpideak. Eskuliburu horren bertsioak eguneratzen joan ginen (azkena 2008an jarri zen indarrean). Goizperren euskara lan-hizkuntza izatea bermatzen laguntzeko tresna paregabea izan dugu luzaroan. Goizperko euskara planak beti izan du euskara normalizatzeko eta euskaraz lan egiteko nahia ipartzat, baina gero eta eleaniztunago den inguruak eta Goizperren hazkundeak euskaraz gain, eguneroko lanean beste hainbat hizkuntza ere kudeatzea eskatzen zuenez, 2015ean Goizperko Hizkuntza Politika Orokorra adostu genuen.

Politika orokor horrek hizkuntzak modu iraunkorren kudeatzeko irizpidea ezartzea eskatu zigun, hizkuntzen berdintasuna aitortuta eta lekuan lekuko hizkuntzari lehentasuna emanda.

Erakundea ordezkatzeko talde anitz batek egin zuen lanketa, eta gainerako politikak bezala, Goizperko Zuzendaritzak onartu eta indarrean jarri zuen 2015eko abenduaren 22an.

2002an Euskararen Erabilerarako Eskuliburua eta 2015ean Goizperko Hizkuntza Politika dira euskararen inguruan adostu eta onartu diren dokumentu nagusiak Goizperren. Biak ala biak, Zuzendaritzan onartu eta handik lantegi osora zabaldu eta kudeaketa eredian txertatu izan dira. Bien artean garapen bat izan da; Euskararen eskuliburuak euskarari bide eman dio eta zehatzera jo izan du (irizpide zehatzak arlo bakoitzerako), eta Goizperko Hizkuntza Politikak orokorrera jo du, euskarari gainerako hizkuntzen artean bere lekua eta maila aitortuta.

Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?

Hizkuntza Politika Orokor honek, hizkuntzak modu iraunkorren kudeatzea erraztu digu, lekuan lekuko hizkuntzari leku eginda eta euskarari funtzio eskusiboak aitortuta.

Gure interes taldeengana egoki iristeko bide eman digu eta erakundeko kudeaketa sisteman txertatu dugu prozesuko kudeaketaren bidez hedatu eta jarraipena egiteko.

Malgutasunean eta adostasunean oinarrituta dagoenez, eta pertsonen arloko sistemetan txertatuta, Goizper osatzen dugun pertsonon jarrera eta ezagutza indartzea ekarri du.

Hizkuntza politika honek, euskara ahalik eta mailarik altuenean zein modurik naturalenean erabiliz eta euskaraz lan egitea iraunkorra izatea utzi digu, jokaera eta lan molde berrietara egokituz, baina atzera urratsik edo gainbeherarik gertatu gabe, betiko bihurtuko duen erabilera egonkortuz. Horretarako, prozesuko kudeaketaren bidez jarraituko dugu Hizkuntza Politika kudeatzen, zuzentzen eta errebisatzen.

Euskararen normalizazioan Goizper gailurrera iristen ari da dagoeneko. Izan ere, Goizperren euskaraz eroso eta naturaltasunez hitz egiten da, eta erabilera hori gainera, iraunkorra da denboran. Edozein langile berri sartzen denean segituan hautematen du naturaltasunez lan egiten dugula euskaraz, eta hori, segur aski euskara gure enpresa-kulturaren parte izatera pasatu delako da.

Goizperko hizkuntza politika

Goizper Taldean, gero eta eleaniztunago den inguruak hainbat hizkuntza erabiltzea eskatzen digu, eta bakoitzari bere tokia egitea, **euskarari uko egin gabe**.

Ingurunearekiko konpromisoan oinarrituta, hizkuntzak modu iraunkorren kudeatzeko irizpidea jarraitu nahi dugu, **lekuan lekuko hizkuntzari tokia** eginda eta Euskal Herriko languneetan **euskarari funtzio esklusiboak** emanda.

Goizper Taldeko negozioen hazkundera eta lehiakortasuna bilatu nahi dugunez, **hizkuntzen aniztasuna onuragarria** da gure interes taldeengana egoki iristeko; horregatik, hizkuntzen kudeaketa iraunkorra **erakundeko kudeaketa sisteman txertatuko** dugu, eraginkortasunez hedatu eta jarraipena egiteko.

Gure hizkuntza politika estuki lotuta dago Goizper Taldean lan egiten duen **giza taldearen jarrerekin eta ezagutzeekin**, eta **malgutasunean** eta **adostasunean** oinarrituta dago; ondorioz, oso kontuan hartuko dugu pertsonen arloko sistemetan.

Goizper Taldeko hizkuntza nagusiak honako hauek dira:

- **Euskara**: Euskal Herrian sortutako kooperatiba izanik, gure lan hizkuntza nagusia da, berezkoa eta lehentasunez darabilguna.
- **Gaztelania**: EAEn ofiziala da euskararekin batera, eta kanpo harremanetan ohiko erabilerakoa gure merkatuaren zati handi batean.
- **Ingelesa**: atzerriko gure planta eta delegazio batzuetan lan hizkuntza da, eta kanpo harreman komertzialetan ohikoena.
- **Frantsesa**: atzerriko gure delegazio batzuetan lan hizkuntza da, eta harreman komertzialetan ere zabalkunde handikoa da.
- **Portugesa, alemana** eta **italiera**: batik bat harreman komertzialetako hizkuntzak dira.

Konpromisoak:

- Euskara da gure lan hizkuntza nagusia, eta gainerako hizkuntzen artean lehenetsiko duguna Euskal Herriko languneetan. Euskara hutsez egin daitekeena euskara hutsez egingo dugu, eta beharrezkoa denean bakarrik joko dugu beste hizkuntzak erabiltzera.
- Euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak direnez, hiztunen eskubideak babesteko bitartekoak jarriko ditugu; horrek, erakunde gisa, hizkuntza biak ezagutu beharra eskatuko digu.
- Euskal Herritik kanpoko harreman komertzialetan eta laneko komunikazioan beste hizkuntza batzuk erabili eta lehenetsiko ditugu, nagusiki gaztelania, ingelesa eta frantsesa.
- Hizkuntza kudeaketaren kalitatea bermatze aldera, erreferentziatzat hartuko dugu Bikain ziurtagiria.

Hizkuntza politika honen jardun nagusiak batik bat arlo hauetan islatuko dira:

1. irudian, komunikazioan eta harremanetan
2. pertsonen arloko sistemetan
3. erakundearen hazkundera eta lan tresnetan

Jardun nagusietako jarraibide orokorrak:

1. Irudian, komunikazioan eta harremanetan:
 - Tokian tokiko hizkuntzak izango du **lehenetsua** irudian, harremanetan eta komunikazioan.
 - **Konpromisoa** hartzen dugu interes taldeen **hizkuntza aukera bermatzeko** (Bazkide eta langile, bezero, kontsumitzaile, hornitzaile, erakunde edo gizarteak oro har aukeratzen duen hizkuntzan erantzuteko konpromisoa hartzen dugu)
 - Ahal dela, **euskara hutsean egingo dira hala egin daitezkeen funtzioak**
2. Pertsonen arloko sistemetan
 - Pertsonen **egonkortasuna** eta polibalentzia bilatuko dugu.
 - Pertsonen aukeraketan, **lanpostuak behar duen hizkuntza profila** eskatuko zaio langileari.
 - **Antzuolarako** aukeraketan euskara eta ingelesa jakitea eskatuko da.
 - Hizkuntzen ezagutza hobetzeko **bitartekoak** jarriko ditugu, eta epea betetzeko konpromisoa eskatu
 - Hizkuntzak **ikasteko aukerak ematea erraztuko** dugu, hala nahi dutenena diruz lagunduz eta beharra dutenena bereziki bultzatuz
 - Jardueraren ebaluazioaren bidez alde sendoak eta **hobetzekoak identifikatuko** ditugu

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

3. Erakundearen hazkundera eta lan tresnetan

- Goizper hazteak **ez dio kalterik egingo** euskarari Antzuolan lortutako mailari
- **Goizperren eraginpean eratu edo sortutako erakundeei** Hizkuntza Politika hau jakinaraziko diegu
- Hizkuntza politika hau **inbertsio berrietara** ere hedatuko da (instalazioak, makinak, lan tresnak, informatika, etab.)

2015eko abenduaren 22



Goizperko Gerentea
Alvaro Martínez de Lagos

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA